



Urchueguia:  
"Ez dut  
erantzukizunik  
saihestuko"

Ana Urchueguiak 24 urte egin ditu Lasarte-Orian alkate, Estatuan beste inork baino gehiago. Urte hauetan, erabat eraldatu den herriaren iraganaz, gaur egunaz eta etorkizunaz zein bere kargu berriaz eta Jesus M. Zaballos bere ordezkokoaz mintzatu da solasaldian. /4-5



U.K. Bill taldeko kideak oso gustura aritu ziren Jalgi kafe-antzikian.

## Rocka nagusi Jalgin

■ U.K. Bill Añorgako rock taldeak kontzertu indartsua eskaini zuen ostiralean

Utikan taldearen errautsetatik sortutako U.K. Bill rock taldeak kontzertu paregabea eskaini zuen ostiralean Jalgin. Rafa, Unai eta Iker musikariren kontzertuak hasieran jende ugari bildu ez bazuen ere, emankizuna aurrera joan ahala publiko zabala lortu zuen. Herrian egiten duten lehenengo kontzertu honetan hasi berri duten proiektuaren lehenengo urratsak eskaini zituzten. Bertaratutakoak gustura dantzatu eta entzun zituzten proiektu berri honen abestiak. •

## Barre-algarak kulturetxeko kafetegian

Hori da Ruben Arrospide umoristak bere bakarriketarekin sortu zuena Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian. Orain hasi dira Udaleko Gazteria saila eta Xpression kultur taldea, Gazte kontzertuak ekimenean, musikaz gain horrelako saioak antolatzen eta arrakasta handia izan zuen. Kafetegira hurbildutako herritarrek umorista-aktore honen bizipenak ezagutu zituzten, hala nola, pasta nola prestatu edo besteen zaletasunen kritika. Hau guztia, umorea eta ironia nahastuz. •



KIROLA /2  
Ibarburu igerilaria laugarren Kutxa Sarian

POLITIKA /3  
Ana Urchueguia alkatea Txilera joateak ez du oposizioa harritu

KULTURA /6  
Bertso Paper Lehiaketako sari-banaketa ostiral goizean

## GURUTZETA SAGARDOTEGIA

ZATOZ  
TXOTX EGITERA!

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU,  
EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURALEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)  
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

# Ibarburu igerilaria laugarren Kutxa sarian

Herriko Unai Bueno, Garazi Alkorta eta Inhar Lizarza ere Legazpiko finalean izan ziren

Buruntzaldeko Igeriketa taldeko Iñigo Ibarburu, Unai Bueno, Garazi Alkorta eta Inhar Lizarzak Kutxako gaztetxoan Elkarteko X. Igeriketa Sariko finalean parte hartu zuten aurreko igandean Legazpiko igerilekuan. Emaitzarik onena Iñigo Ibarburu infantil mailako igerilariak lortu zuen. Final nagusian domina gertu izan zuen, laugarren iritsi zen.



Duela urte batzuk Lasarte Oriako igerilariak zuten maila berreskuratzeko seriooki ari dira lanean.

## TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Igeriketa Sariko finalean aurreko igandean Legazpin, alebina mailan Inhar Lizarza eta infantilen mailan Iñigo Ibarburu, Unai Bueno eta Garazi Alkorta.

Ruben Villalon prestatzaileak azaldu digunez jada helburua lortuta zuten; aurreko kanporaketetan finalean sartzea zen euren erronka eta adin horietako Buruntzaldeko bederatzi igerilarietatik lau finaletan sartu zirenez pozik dira emaitzarekin. Iñigo Ibarburu laugarren izan zen final

nagusietako batean eta beste hiruak B finalean aritu ziren. Sei onenak final nagusian aritzen dira eta hurrengo seiak B finalean.

Bestalde taldeka mutil eta neskek elkarrekin lehiatzen dira, bi mutil eta bi neskek osatutako taldetan. Buruntzaldekoak ez ziren sailkatu. Ruben Villalonek aitortu digu taldeka ez daudela onenen artean. "Klubaren asmoa taldeka kirolariak erakarri eta pixkanaka hobetzea da. Duela urte batzuk Gipuzkoa mailan Lasarte-Oria maila onen aritzen zen eta helburua hori da, seriooki lana egin eta ziklo berri hobe bat irekitzea".

Dena den, prestatzaileak pozik zen igandean egindako lanarekin denek hobetu baitute aurretik zuten marka. "Igerilariak pozik ziren eta eurak pozik badaude ni ere bai". Gainera finaletan egoteak berak badu igerian ari diren haurrentzat, finalista guztiak batera ateratzen baitu-

ra ilaran probaren aurretik. "Haurrentzat lehiaketa polita da, motibatuak sentitzen dira, garrantzitsua da eurentzat, kamiseta bat jasotzen dute,..." kontatu digu Rubenek.

Datorren astean amaituko dute neguko denboraldia eta jada udakoa prestatzen ari dira herriko igerilariak.

Guztira 45 igerilari inguru ari dira Buruntzaldeko taldean. Txikienek 7 urte dituzte eta zaharrenek 22 ditu. Ruben Villalonek kontatu digunez, gehienez 20 urte ingurura arte jarraitzen dute igerilariak "7 bat urterekin hasi eta aspertzen diren arte jarraitzen dute" •

## XII. Squash Txapelketan izena emateko epea zabalik

Lasarte-Oriako Udako Kirokari Zerbitzuak hogeita bigarren Squash txapelketa soziala antolatu du.

Txapelketa hau 2010eko martxoaren 22n hasi eta ekaina arte garatuko da.

### Txapelketako arauak

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, squash federazioaren arauekin zuzenduko da txapelketa, partidak 5 jokotan hoberenak irabaziko ditu eta epailearen erabakiak ukaezinak dira.

Era berean, jolasteko pilotak Kirokari Zerbitzuak ipiniko dituela ere adierazten du.

### Izena ematea

Parte hartzeko asmoa dutenek martxoaren 12a arteko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko.

Parte hartzeko gutxieneko adina 14 urte direla, ohartzarazten dute antolatzaileek.

Inskripzioaren prezioa Buruntzaldeko bazkideentzat 10 eurotako da.

### Egutegia eta partidak

Honetaz gain, antolatzaileek txapelketako partaideekin martxoaren 16an 19:00etan bilera egingo dute Kiroldegian egutegia eta partidak zehazteko. •

## Zubizarreta Espainiako junior txapelketan egongo da

LOKEko judoek otsailaren 20 eta 21an, Tuteran Espainiako junior txapelketarako sailkapen saioan eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatu ziren Hernanin.

Espainiako sailkapen saioan, Leire Zubizarreta, Esteban Martinez eta Iñaki Elizalde parte hartu zuten.

Leire Zubizarretak helburua bete zuen. Gorka Aristegi entrenatzailearen hitzetan, "nahiz eta bere maila ez erakutsi, bi borroka irabazi eta lehenengo postua eskuratu zuen." Laugarren aldia da Leire Espainiako txapelketa batean izango dena.

Estebanek eta Iñakik, berriz, eskuan izan zuten



Leire Zubizarreta martxoaren 6an Espainiako junior txapelketan lehiatuko da.

sailkapena, baina hirugarren postua eskuratu zuten eta kanpoan geratu dira.

Gipuzkoako txapelketan berriz, lehenengo urteko infantilek lan ona egin zuten.

Brontzeko domina eskuratu zuen Oscar Garridok eta Asier Zubizarretak 5. postua. Fermin Balda ere lehiatu zen, baina bi borroka galdu ostean kaleratua izan zen. •

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Ana Urchueguia Txilera joateak ez du udal-oposizioa harritu

Somotoko laguntzen inguruan irekita dagoen ikerketatik aldendu nahi izatea egozten diote oposizioko alderdiek

Otsailaren 23an iritsi zen ustekabeko albisteak, Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkateak, ez zuen legealdia amaituko. 24 urtez herriko alkatetza bere gain eduki eta gero, Txilera egingo du salto. Bertan, Eusko Jaurlaritzako ordezkaria izango da Txile-Peru egoitzan.

Sorpresa izan da herritarrentzat, baina ez hainbeste oposizioko alderdientzat. Denen jakinean zegoen Urchueguiak, hurrengo legealdira aurkezteko intenziorik ez zuela, baina legealdi hau bertan behera uzteak ustekabean harrapatu ditu.

## Zurrumurruek oihu

Urchueguieren irudia kalteua zegoela aipatzen dute oposizioetik "Somotoren inguruko ikerketak hartutako bidea ikusita, PSEk fitxa mugitu beharra zeukan" adierazten du Ana Prieto Lasarte-Oriako Herriarren Plataformako zinegotziak.

Ezker Abertzaleak, EB, H1 eta EAJ-arentzat ere Somotok eragin du Urchueguieren martxa "PSEren eta Eusko Jaurlaritzaren erabakia izan da Lasarte-Oriako Udaletxean Kooperazioako kudeaketaren inguruan irekita dagoen ikerketatik aldentzeko" gaineratzen du Estitxu Alkorta EAJ-ko zinegotzia.

Bestalde, Hamaikak bat-eko zinegotzia den Jesus Iztaren arabera "urte hauetan jasan duen desgasteak eragi-

na izan du erabaki hau harterakoan, gauzak ez daude garbiak eta beraz irteera ona suposatzen dio Eusko Jaurlaritzako ordezkariak".

"PSEk Urchueguia atera bide bat bilatu beharra zion" aho batez aipatzen dute oposizioetik "berak herritik ahalik eta urrun joan nahiko zuela da segurua" gaineratzen du Ricardo Ortegak EB-ko zinegotziak.

## Urchueguieren curriculum

"Zentzugabekeria bat da gure herriaren izen ona zikinduen pertsona batek Euskadiren ordezkari hautatua izatea" aipatzen dute EAJtik, are eta gehiago Eusko Jaurlaritzarako bozeramaileak "Urchueguieren "curriculum"-a SPRI-ko ordezkariako onena" zela jakitera eman eta gero.

"Nicaraguan izandako ibilbideak balio gabetzen du Urchueguia edozein kargu publikorako, are gehiago gure Herriaren ordezkari izateko" gaineratzen du.

## Somotorena ez da amaitu

Somotoren ikerketa dela eta "nahiko txukun, zarata egin gabe joaten saiatzen ari da" adierazten dute ezker abertzaleko zinegotziak.

Hala ere, argi utzi nahi diote Urchueguia irekita dagoen ikerketa batzorde hori aurrera jarraituko duela "PCLOtik bukaeraraino iritsiko gara. Berdin zaigu Txilen, Perun, edo non dagoen, erantzukizunak egonez gero bere



Urchueguieren alde egitearekin herriko udaletxean jarrera aldaketa egongo dela espero dute oposizioko alderdiek.

gain hartu beharko ditu PSE alderdiak" gaineratzen du Ana Prietok.

Urchueguiak 24 urte darima alkatetzan, Lasarte-Oriako ezagutu duen alkate bakarra dugu "oso gustura zebilen herrian, baina urte dezente dira eta horrek desgastea sortzen du, hau ikerketa komisioko egiteko erabakiarekin lotuta, nik uste dut azkenean kargua usteria eragin diola" azaltzen digu Jesus Izeta.

## Plurienpleatua

Urchueguiak bere kargua uzteko intenzioa ezagutzera eman zuenean, zinegotzi moduan jarraitu zuela adierazi zuen "baina hori nola bateratuko duen ikusi beharko da" ezker abertzaleko zinegotzian aburuz. Pleno guztietara eto-

rriko da? Komisioetara? Oposizioak ez du oso argi ikusten nola egingo duen bi leku ezberdin eta euren artean urruti dauden hauetan lanean jarduteko "hau alkatetza korrika ustea ez egosteko izango da, atzean arrazoiren bat egongo da" gaineratzen dute.

## Zaballos bai, Zaballos ez

Jesus Maria Zaballos oraindik bere lehenengo legealdia bete ez duenean, alkate bilakatu da "esperientzia gutxi du baina gure ustez aire fresko eta berria eman nahi zaio udaletxeari" adierazten du Prietok.

Lasarte-Oriako alkatetzan lehenengoz emango den aldatu honetan "Zaballos baino eskarmentu gehiagoko beste bat aukeratu izatea espero

nuen" gaineratzen du Ortegak.

Bestalde ezker abertzaleak ez dute baloraziorik egin nahi "lanean ikusi beharko dugu iritziak plazaratu baino lehen, hala ere, aktitude mailan hobekuntza bat ematea espero dugu".

"Sorpesa bat izan da niretzako, Mugika espero bainuen Urchueguieren ondorengoa bezala" adierazten du Izetak.

Mugika beharrean Zaballos jarri nahi izanak, "PSE bere izenaren zuriaketa prozesu batean mugilduta dagoela erakusten digu" Alkortaeren hitzetan.

Jose Angel Encinas, PPko zinegotziarekin kontaktuan jartzen saiatu garen arren, ez ditugu bere adierazpenak lortzerik izan. •

## Ziklogenesi lehergarriaren arrastoak herrian

Lasarte-Orian uste baino indar gutxiagorekin pasa bazen ere, ziklogenesi lehergarriaren haize ufadak kalteak eragin zituen herrian. Larunbat arratsaldean, Pablo Multiozabal kaleko Urdaneta eraikineko laugarren solairu baten balkoiko burdin eta kristalak erazi eta kalera jaurti zituen. Zorionez momentu horretan ez zen inor bertatik pasa, eta tragedia bihurtu zitekeena ziklogenesiaren ondorio isolatu batean geratu zen. •



## Bizkarrezurraren garrantzia osasunerako.-

Ostiral arratsaldean, Juan Alonso kiropraktikoak *La salud a través de la columna vertebral* hitzaldia eskaini zuen. Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretora hurbildu ziren herritarrek bizkarrezurra osasuntsu nola mantendu eta honek gure osasunean duen eragina ikasi ahal izan zuten. •

Ana Urchueguia/ Lasarte-Oriako alkatea

'Zinegotzi bezala jarraituko dut. Ez dut erantzukizunik saihestuko'

Ana Urchueguia, hogeita lau urteko agintaldiaren ostean, gaur egingo dio uko alkate-karguari



Ana Urchueguia. Eusko Jaurlaritzako ordezkari lanak eta zinegotzi lanak bateratuko ditu legegaldia bitartean.

24 urte egin ditu Lasarte-Oriako alkate, Estatuan hortan denbora gehien iraun duen pertsona da Ana Urchueguia. Orain Eusko Jaurlaritzako ordezkari izango da Txile eta Peru. Egun hauetan lampetua dabil, elkarrizketak eko Udako zereginak direla eta. Gainera, gaur, alkate-karguari uko egingo dio. Hala ere, tartetxo bat egin digu berarekin solasaldia izateko.

Nerea EIZAGUIRE

Lehen zuziagarri bat lortzeko hiru egun egiten zenituen: hona etorri, gero Urrietako eremukoa izateaz gain, Urrietara joan, e.a. Eta horietatik lan asko egin digu eta eskerak eman behar zidala sori zeren emari ziren lan gaitz eraldatu da herria. Bere traigunaz, gaur egunaz eta etorkizunaz hitz egiteaz gain, bere kargu berriaz eta jesus M. Zabaloen bere ordezkari buruz ere mintzatu gara. beste hamaka milioi kontratatuko enpresetara da.

**Alkate bezala 24 urte egin dituzu, baina Lasarte-Oria sortu zuten Batzordeko kidea ere izan zinen?**

Bai, horrela da. 1985eko martxoan erreferendumua egin zuten. Andoain, Urmieta eta Hernaniko eremu batzuk batu eta herria sortu nahi zela erabaki zen. Ni, orduan, Hernaniko zinegotzia nintzen.

Hauteskundetako emaitzen arabera, batzorde bat eratu zen eta alderdiak nik nuen espertisia ikusitaki eta Lasarteko aldeak eskatuta proposatu ninduen batzordeko kidea bezala. Batzordean zehar ezindatu ninduen.

**Izan ere, zuek azaldu duzun alderdiaren ez zegen Udaberriak?**

Zumaiburun ginen. Udala sortu zenean, proiektua hartu eta ordutik beharrezkoak izan ziren guren udalera zango zena, baina egun txikia gertatu da.

**Herriaren eraldaketa handia izan da urte hauetan...**

Oso handia da. Memoria egitea, besteak beste, musika eskola, liburuetatik, elkartetik, Zero Sete akordioa orkestra, Alboaka abesbatza, Erkeze taldea, (labezegen aurretik), Villa...

Simestezina iruditzen zait opozitziok aurtekontuen %0,000002a soilik kontuan izatea

Horregatik eman zenien esz-za? Nire sinestezina iruditzen zait opozitziok aurtekontuen %0,000002a kontuan izatea. Azkenean, zerbait pentsatzen nuen herri horretako duan maitasuna erabili dute, nik ez nuen nire burua ikusten beste proposamenekin zingotzi bezala jarraituko dituzkela.

**Hurrengotik hartu duzu erabakia?**

Horretaz gain badira beste erabakirik, Txile eta Peru ez dituzte erabakitzen. Orain lan garrantzitsua dugu Gobernuarekin eta herriekin batera proiektuak jarraitzea.

**Somotoko auzia sortu eta zer egin duzue?**

Hizkuntza ezagutzeko puntu bat da, Txile eta Peru ez dituzte erabakitzen. Orain lan garrantzitsua dugu Gobernuarekin eta herriekin batera proiektuak jarraitzea.

**Zein izango da hurrengo urteko proiektua?**

Horregatik, ilusioz poa. Ez dakit zer aurkituko dudan, baina da egiteko proiektuak. Nire esperientzia hara...

**Garatu da eta garatzen jarraitu behar du herriak.**

Herri bat egunerokoa da, herria bizia da.

**Proiektu arrakastatsuen aurrera eraman ditugu eta horien aurka bozkatu du oposizioak.**

Garatu da eta garatzen jarraitu behar du herriak. Herri bat egunerokoa da, herria bizia da.

Hurrengo hauteskundeetara begira, berritza ere, gehiengo absolutua izango dugula uste dut

Horregatik eman zenien esz-za? Nire sinestezina iruditzen zait opozitziok aurtekontuen %0,000002a kontuan izatea.

**Hurrengo hauteskundeetara...**

Berriro ere, gehiengo absolutua izango dugula uste dut. Orain kalkulatzen ari gara.

**Zein gomendio emango zenuke?**

Horregatik, ilusioz poa. Ez dakit zer aurkituko dudan, baina da egiteko proiektuak. Nire esperientzia hara...

**Garatu da eta garatzen jarraitu behar du herriak.**

Herri bat egunerokoa da, herria bizia da.

**Proiektu arrakastatsuen aurrera eraman ditugu eta horien aurka bozkatu du oposizioak.**

Garatu da eta garatzen jarraitu behar du herriak. Herri bat egunerokoa da, herria bizia da.

**Herriaren eraldaketa handia izan da urte hauetan...**

Oso handia da. Memoria egitea, besteak beste, musika eskola, liburuetatik, elkartetik, Zero Sete akordioa orkestra, Alboaka abesbatza, Erkeze taldea, (labezegen aurretik), Villa...



Ana Urchueguia eta Udaltzatza. 2007an. Ez da argazki hau berritza errepikatuko. Gaur, hogeita lau urte Udala zuzentzen egon ondoren eta legegaldia bitartean baimo lehen, alkateak agintea hartu du.

**Hurrengo hauteskundeetara...**

Berriro ere, gehiengo absolutua izango dugula uste dut. Orain kalkulatzen ari gara.

**Zein gomendio emango zenuke?**

Horregatik, ilusioz poa. Ez dakit zer aurkituko dudan, baina da egiteko proiektuak. Nire esperientzia hara...

**Garatu da eta garatzen jarraitu behar du herriak.**

Herri bat egunerokoa da, herria bizia da.

**Proiektu arrakastatsuen aurrera eraman ditugu eta horien aurka bozkatu du oposizioak.**

Garatu da eta garatzen jarraitu behar du herriak. Herri bat egunerokoa da, herria bizia da.

**Herriaren eraldaketa handia izan da urte hauetan...**

Oso handia da. Memoria egitea, besteak beste, musika eskola, liburuetatik, elkartetik, Zero Sete akordioa orkestra, Alboaka abesbatza, Erkeze taldea, (labezegen aurretik), Villa...

Advertisement for 'ENRIZITATEA ARREGUI' featuring electrical services: TB/Hi-Fi, Instalazio elektrikoak, Material elektrikoak, Argiak, Etxetresna elektrikoak. Contact: Kale Nagusia 39 - Tel.: 943 36 1080 - Tel./Fax: 943 373521 - LASARTE-ORIA

Advertisement for 'BERTAKO FABRIKAZIOA' (Solomoko baraturita-Baserrin pateak). Products: Tripakak-Saltxitak, Basurde burua. Contact: Lodi Barreren Kalea 3 - Tel.: 943 36 1278 - 943 361 655 - 943 362 511

# 150 sorta aurkeztu dituzte herriko haurrek Bertso Paper Lehiaketan

■ Bertso Eskolako epai-mahaikoek aurten inoiz baino erabaki zailagoa izan dela nabarmendu dute ■ Ane Labaka eta Uxue Alberdik kantatu zuten sari banaketan

150 bertso sorta inguru aurkeztu dituzte herriko neska-mutilek Lasarte-Oriako XVII. Bertso Paper Lehiaketara. Bertso Eskolako epai mahaia nabarmendu duenez, inoiz izan den mailarik altuena izan da aurten eta sekula baino zailago izan dute irabazleak aukeratzeko orduan. Landaberi ikastolako eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko lanik onenak saritu dituzte. Ostiral goizean egin zen sari banaketan Ricardo Ortega zinegotzia eta Edu Galardi Ttakuneko lehendakari ordea izan ziren.

## TXINTXARRI

**B**ertso Paper Lehiaketako sari banaketa ekitaldi polita izan zen. Ane Labaka herritarrak eta Uxue Alberdik, eskolako neska mutilentzako bertso saio egoia eskaini baitzuten Unai Muñoa, herriko bertsolari eta herriko ikastetxeetako bertso eskoletako irakaslearen gidaritzapean.

Ttakun Kultur Elkartek, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin antolatutako bertso paper lehiaketako irabazleek ostiralean goizeko 10:30etatik aurrera jaso zituzten sariak. Sari emaitzak, batetik, Ricardo Ortega, Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko Burua izan zen Udalaren izenean eta bestetik Edu Galardi, Ttakun Kultur Elkarteko lehendakari ordea.

Landaberi eta Sasoeta Zumaburu ikastetxeetako lanik onenak jaso zituzten sariak. Landaberi ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, lehenengo saria: Inigo Otaegik jaso zuen eta aipamen berezia eskuratu zuten, Xuban Ollokiegi eta Asier Olmos-ek.

Landaberriko DBH Bigarren Hezkuntzari dagokion saria, berriz, Maider Galardik jaso zuen. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeari dagokionez Lehen Hezkuntzako ikasleen artean Aroa Sotomayor, Nere Diez eta Yeray Jaenes-en sorta saritu zuten eta aipamen berezia jaso zuten Amaia Arruabarrena eta Djan Molinak.

Sari banaketaren ondoren beste saiotxo bat egin zuten Ane Labaka eta Uxue Alberdik, jendarterta ere atera ziren neska mutilak zirikatzeraz. •



Bertso saioarekin ederki gozatu eta gero, irabazleak pozik igo ziren oholtzara saria jasotzera.

## Irabazleen bertso sortak

### Landaberi LH ikastolako 1. saria, Inigo Otaegi

GAIA: GUSTUKO DUZU INGELESA?

Zuretzat nik daukat gaur galdera erreza ez da inolaz ere bate aldrebesa ez luzatu gehiegi daukat nahiko presa hitzegiten al duzu hizkuntz ingelesa?

Oso gustokoa dut baina ni naiz txarra hitzegiten hasten naiz eragiteu parra nik ez dakit esaten ezta hitz bakarra ni ingeleserako naiz nahiko baldarra

Gutxienez jakingo zu eye dala begia fish arria dala ta bread berriz ogia ezer ez dakizula ote da egia ikasi nahi badezu hartu hiztegia

Kaso egingo dizut ta hasi ikasten eta lehendabiziko sartu interneten Elhuyar hiztegiaren hitz batzuk itzultzen edo bestela sartzen akademi baten

### Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeko 1. saria, Aroa Sotomayor, Nere Diez eta Yeray Jaenes

GAIA: GUSTUKO DUZU INGELESA?

Guri gustatzen zaigu ingelesa ikastea eta ikasteko behar dugu bakea beti etxeko-lanak nahi degu izatea akademiara goaz hau da hau zortea

Gure irakaslea da oso azkarra baina dantza egiten da oso kaxkarra eta beti gurekin badauka indarra pazientzia galtzen badu bihurtzen da baldarra

*Irabazleak izendatzeaz gain, hiru aipamen berezi ere izan dira aurtengo lehiaketan*

### Landaberi DBH ikastolako 1. saria Maider Galardi

GAIA: ATZO AMETS EGIN NUEN

1. Guztiz iluna dagoen gelan esnatu naiz, bero-bero, ohe batean etzanda nago izerditan, eri ero. Bart gertatu zenataz oroitu naiz, berehala, bai gero! Amets gaizto hau ametsa soilik izatea dut espero.

2. Egunero bezala lokartu hamaika terdik aldera, gauerdia pasata izan zen jende horren etorrera. Atea golpez puskatu zuten txikituaz goitik behera. Imajina dezakezuen, sekulako egoera!

3. Ostikokoa nere gurasoak utzi dituzte aparte. Hankaz gora laga dute dena ni gelan aurkitu arte. Burua zapiz estali eta bide guztian gereizpe. Jaso ditudan jipoi guztiek berriro lokartu naute.

4. Beste biderik ez dut izan ta, azkenean nik aitortu. Besotik bortizki heldu naute, gero zelda hontan sartu. Hemendik aurrerako bizitza: bakardade-basamortu. Zorigaitzeko amets-gaizto hau benetako zait bihurtu.



Ane eta Uxue ikusleak zirikatzen aritu ziren, baten bat gorritu ere egin zen.

Ostirala, 5

**Antzerkia**

NOS TOCÓ LA PRIMITIVA antzezlan-  
a eskainiko du Lan eta Lan  
Beti Lan taldeak emakumearen  
nazioarteko eguna ospatzeko.  
Sarrera, 2 euro. Kulturetxean,  
19:30etan, GAZTELANIAZ.

Larunbata, 6

**Bertso-afaria**

MAIALEN LUJANBIO, UXUE ALBER-  
DI ETA ENAUT ELORRIETAREKIN.  
Hitzen jolasa musikaren kolo-  
retan izenburuko bertso-afaria.  
Arrieskalletan, 21:00etan.

Igandea, 7

**Zinea**

NIKO ETA IZARRETARAKO BIDEA  
haurrentzako filma. Sarrera,  
3, 15 euro. Kulturetxean,  
17:00etan, EUSKARAZ.

Osteguna, 11


**Zinea**

GRAN TORINO filma Okendo  
Zinema Taldearen eskutik.  
Sarrera, 4, 15 euro. Kulture-  
txean, 21:30etan. GAZTELANIAZ.

Ostirala, 12

**Kontzertua**

ROBERT EXPERT KONTRATENOREAN  
emanaldia Danok Kideren  
V. Musika Topaketen barruan.  
Expertekin batera Alberto  
Saez Puente pianoan eta Ain-  
hoa Merzero sopranoa ere



“Espektroen” erakusketa Jalgin

Alvaro Ledesmanen *Espektroak* izeneko margoen erakuske-  
ta ederra ikusgai.

MARTXOA OSOAN ZEHAR  
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

arrituko dira. Brigitarren  
komentua, 19:30etan.



**Bakarriketa**

KIKE BIGURIK antzezleak baka-  
rrizketak eskainiko du Gazte-  
ria sailak eta Xpression kultur  
elkartek antolatzen dituzten  
Gazteentzako emanaldietan.  
Musikaz gain, tarteka kafe  
antzerkia eskainiko dute. Kul-  
turetxeko kafetegian,  
20:00etan, GAZTELANIAZ.

Larunbata, 13

**Antzerkia**

UHARTE EZEZAGUNA haurrentza-  
ko antzezlan Markeliñe tal-  
dearen eskutik. Sarrera, 3, 15  
euro. Kulturetxean, 18:00etan.

Igandea, 14

**Zinea**

PERCY JACKSON Y EL LADRÓN DEL  
RAYO haurrentzako filma.  
Sarrera, 3, 15 euro. Kulture-  
txean, 17:00etan.

Ostirala, 19

**Kontzertua**

AUPA QUARTET, Bartzelonako  
soka laukotearen emanaldia.  
Jalgin, 23:00etan.



Ostirala, 26

**Jam sesioa**

THE BILLIE JEANS (funk, soul...) taldea izango da gonbidatu berezia jam sesioan. Jalgin,  
23:00etatik aurrera.



**Oharrak**

**Aromaterapia Muntteri-AEK euskaltegian**

Emozioen oreka usain gozoen bidez nola lortu azalduko die Itziar Salegik Muntteri-AEK euskaltegiko ikasleei. Asteazkenean, bi saio emango ditu Itziarrek, goizeko 09:30etik 11:30eta eta arratsaldeko 18:30etik 20:30era. Aromaterapiaren munduan murgilduko ditu guztiak.

**Merkatu solidarioa**

Martxoaren 4 eta 5ean merkatu solidarioa egingo dute Santa Teresa ikastetxean. Azoka goizeko 09:30etik 13:30era eta arratsaldeko 15:15etik 18:00etara egongo da irekia.

Jasotako dirua bi proiektu hauek ateratzeko izango da: Manos Unidasek Vietnameko Bim Son herriak haur eskola bat eraiki eta hornitzeko eta Fundeok Costa Ricako Coopevega herrian nekazal emakumeen promozioa sustatzeko.

**6 Nazioak Errugbyko porra**

Beltzak Errugby taldeak 6 Nazioak lehiaketako porra

antolatu du. Sailkapeneko 6 postuak asmatzen dituzten artean, Jalai tabernan bi pertsonentzako afaria eta Zigako landa-etxean 2 pertsonentzako ateburu pasa zozketatuko dira.

4. jardunaldiara arte, hau da, martxoaren 13ra arte dago porra egitea.

Aldatzekua, Txema taberna, Gure etxea, Insausti, Ilargi, Jalgi, Txanpa, Xirimiri eta Udaberri tabernatan porrako txartelak eskuragarri daude. Anima zaitzete!

**Ostadarren federatzeko aukera**

Ostadarreko zikloturista taldeak martxoan hasiko du denboraldia.

Taldean parte hartu nahi duen orok, Ostadarreko egoitzean, Geltoki kalean 25. zenb., izena eman dezake eta federatu daiteke.

Era berean, mendian federatu nahi duen mendizale edo mendi krosetako korrikalariek edo horretarako informazioa nahi duenak kirol fundaziora edo 943 360 433 zenbakira deitu dezake.

**Udaltzainek jasotako gauzak**

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatala jasota:

- Argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, zilarrezko eskumuturrekoa, Seiko markako bi eskumuturreko erloju, Vieceroy markako eskumuturreko erloju, Massimo Dutt markako eskumuturreko erloju, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, Symbol markako makina, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erloju, Suzuki markako motozikleta kas-  
koa eta zilarrezko belarritakoa.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-  
beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri T X I N T X A R R I aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@txintxarri.info o helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

**Eskutitzak**

**ELAk Atez ateko zabor bilketa sistemari babesera erakusten dio**

Otsailaren 27an eta 28an Usurbilen egingo den herri kontsultan atez atekoaren alde botoa ematea eskatzen du

ELAren ustez atez ateko zabor bilketa, dauden sistemetatik, zaborren gestiorako alternatiba onena da. 3Ren (gutxitu, berrerabili eta birziklatu) beharra azpimarratzen du, eta zentzu honetan, errausketaren aldekoak diren eta 3Ren bidea alde batera uzten duten instituzioen jarrera salatzen du.

Birziklatzearen inguruan, ELAk adierazten du atez ateko zabor bilketa sistema dela "zero hondakin" helburura gehien gerturatzeko dena, datuek erakusten dute 5. kontenedorearen sistema baino hobea dela. Eta noski, errausketak baino osasun kalte gutxiago ekarriko dituen sistema da.

Usurbilen otsailaren 27an eta 28an burutuko den herri kontsulta lotesleari dagokionez, ELAk atez ateko sistemaren aldeko botoa ematera deitzen du: - Kontsulta honek balio handia duela azpimarratzen du, beste proiektuetan ez baita herritarren iritzia kontuan izaten.

- Herri honetan bizi izan den esperientziak, birziklatze tasa altuak erakusten ditu, %82, 5. kontenedorearekin %35era iristen ez denean.

- ELAren ustez, atez ateko sistemak udaletxeak zuzenean kontratatua duen langilego kopurua handitzea ekarri behar du, oraingoa ez baita nahikoa. Bestalde, enpresa publiko berri baten sorrerari dagokionez, ELAren ustez zerbitzu hau kudeatzen duen erakundearen aurrekontuak Udaletxeak onartu behar ditu; beraz kudeaketa zuzenean Udaletxeak edo Udal Organismo Autonomo batekin egin behar du eta ez Sozietate Publikoen bitartez, hauek, herriaren borondatea isladatzen duten korporazioen kontrol ekonomiko eta politikotik kanpo geratzen baitira.

Azkenik, ELAk, atez ateko sistema Hego Euskal Herri osora zabaltzeko deia egiten du.

Iker Urruzola  
ELA sindikatua



Publiko ugari bildu zen larunbateko ekitaldian. Iruditan Zambra taldeak eskainitako emanaldietako bat

## Giro polita Andaluziaren eguna ospatzeko

Itxaso MORENO

**A**ndaluzia eguna. Otsailaren 28a egun handia da erkidego horretan bizi diren biztanleentzat, baina, batez ere, bere herritik kanpo bizi diren milaka andaluzentzat.

Gure herriko Semblante Andaluz elkarteak ere hainbat ekitaldi antolatu zituen atzoko eguna ederki ospatzeko.

Larunbatean, Manuel Lekuona kultur etxea giro Rozieroz bete zen antolatutako jaialdiari esker. Dantzaritu ziren Semblante Andaluzeko txikianetatik handienetara, bertaratutako publikoa

ederki aski gozaraziz prestatutako emanaldi paregabearekin. Gitanillos del Alba, Duende Flamenco, Grupo Zambra, Semblante Rociero Abesbatza, Grupo Sentimientos eta Amigos del Sur taldeak gonbidatu bezala, Andaluzian bizi den giroa ederki bertaratu zuten. Jaialdi polita eta indarrez beteta ikusi ahal izan zuten kultur etxean bildutako guztiak.

### Andaluzia Eguna

Igandean, eta Andaluziako egunarekin koinzidituz ekitaldi ugari prestatu zituen Semblante Andaluzek herrian. Jai giroa nagusi izan zen egun osoan zehar.

### Egun handia

Goizeko 11:30ean, jende ugari bildu zen Arantzazuko Amaren Parrokian meza Rozieroa entzuteko. Bertan, Semblante Rociero abesbatzaren eskutik hainbat salbe eta kantu entzun ahal izan ziren.

Ondoren, elkarteak bildu ziren guztiak. Lehendabizi, ohorezko ardoa dastatzeko aukera izan zuten eta beranduago, zuzendaritza batzordeko kideek prestatutako herri bazkariak bapozatzeko.

Ospakizunei bukaera ezin hobea emateko, Semblante Rociero abesbatzak girotu zuten arratsaldea.

Ekitaldi guztietan gainera, eguraldia lagun izan zuten. •

Igande goiza Semblante Rozierok girotutako meza Rozieroarekin hasi zen. Eguerdian, ohorezko ardoa, egun osoa irauango zuen jai giroa sortzeko egokia.

**eztiphoto**  
Argazki estudioa

Ezkontzak, jaunartzeak, estudioko argazkiak, book, album digitalak, bideoa...

informa zaituz  
**jaunartzeak 2010**

**-20%**  
Beharapena  
Gure produktu  
guztietan

Golf Enparantza 4 behea, Atsobakar (Garaikoetxea parean)  
Tel.: 635 005 341- 636 770 058 [www.eztiphoto.com](http://www.eztiphoto.com)



Bazkariko ohorezko mahaian; Mugika, Zaballos eta Semblante Andaluzeko presidentea den Antonio Pedraza Ruiz.